

SESSION 2023

**CAPES
CONCOURS EXTERNE
ET CAFEP**

**SECTION : LANGUES RÉGIONALES
BASQUE**

ÉPREUVE ÉCRITE DISCIPLINAIRE PORTANT SUR LE BASQUE

Durée : 6 heures

L'usage de tout ouvrage de référence, de tout dictionnaire et de tout matériel électronique (y compris la calculatrice) est rigoureusement interdit.

Il appartient au candidat de vérifier qu'il a reçu un sujet complet et correspondant à l'épreuve à laquelle il se présente.

Si vous repérez ce qui vous semble être une erreur d'énoncé, vous devez le signaler très lisiblement sur votre copie, en proposer la correction et poursuivre l'épreuve en conséquence. De même, si cela vous conduit à formuler une ou plusieurs hypothèses, vous devez la (ou les) mentionner explicitement.

NB : Conformément au principe d'anonymat, votre copie ne doit comporter aucun signe distinctif, tel que nom, signature, origine, etc. Si le travail qui vous est demandé consiste notamment en la rédaction d'un projet ou d'une note, vous devrez impérativement vous abstenir de la signer ou de l'identifier. Le fait de rendre une copie blanche est éliminatoire.

Tournez la page S.V.P.

A

INFORMATION AUX CANDIDATS

Vous trouverez ci-après les codes nécessaires vous permettant de compléter les rubriques figurant en en-tête de votre copie.

Ces codes doivent être reportés sur chacune des copies que vous remettrez.

▪ **Concours externe du CAPES de l'enseignement public :**

Concours	Section/option	Epreuve	Matière
E B E	0 4 4 0 E	1 0 1	9 3 9 3

▪ **Concours externe du CAFEP/CAPES de l'enseignement privé :**

Concours	Section/option	Epreuve	Matière
E B F	0 4 4 0 E	1 0 1	9 3 9 3

I. Composition en langue basque

Lau dokumentu hauek oinarri harturik, « bidaiak eta migrazioa » nozioaren inguruko gogoeta bat gara ezazu.

Lehen dokumentua:

Inongo lekuak

Geratu egiten gara ala joan.

Hala ere, geratzen garenean ez gara
apur bat joaten?
Eta joaten garenean ez gara
geratu egiten?

Hemen, geratu eta joan egiten gara?
Ala honuntz gatoz oraindik?
Eta hara ailegatzean, hona itzultzeko
ala harantzago abiatzeko da?

Handik etortzean, han geratu ginen?
Hemen geratzean
hemen geratzen gara? Hemendik joaterakoan
hara itzuliko gara?

Joatea itzultzea da beti? Egundo egon
gabeko lekura itzuliko gara?
Eta itzultzea harantzago joatea
besterik ez bada?

Geratzen denak betirako geratzen dela
pentsa dezake?
Ezinbestekoa da abiatzea eta
ailegatu ezinean geratzea?

Abiatzen dena ez da egundo inon
geratuko?
Ala itzuliko da? Baina, itzultzen dena
abiatu zen lekura itzultzen da, ala?

Joseba Sarrionandia, *Hnuy illa nyha majah yahoo*, 1995, Elkar.

Bigarren dokumentua:

Betidanik euskaldunak laket izan du herritik ilkitzea, ikusteagatik nun eta nola bizi den jendea, eta bazterretako ogia janez hobeki hel ditakenez, etxekotik ariz baino. Odolean du, *ikusi nahi* hori. Kurriarazi daizko eta miarazi zoko gehienak, hainbertzetaraino non erran ahal izan baita: « Zoazi nahi duzun lekurat, eta euskaldunkia hatzemanen duzu ».

Jitez bezenbat, edo gehiago, airakor da ere beharrez. Anitz nekatzen delarik, guti baizik ez du ekarrarazten eta biltzen eremutan laborariak. Sosik ezin egin, ez du bertzerik aipu. Bertzalde, berri-berritararteo, soldadogoak xahutzen zuen: zazpi urte, bortz urte handi, nunbeit sor herritik urrun eremaitiak ez zaikon bakarrik moltsa husten, bainan oraino behartzen askotan osagarria edo galarazten, eta beti, izpiritutik laneko segida bezala asmua ere eta karra bihotzetik emeki-emeki kentzen. Hortakotz, Ameriketarat bazoazin gutiz gehienak gazterik, xorteko adinerat heldu gabe.

Nun-nahi bizitzeko bere burua on zaukan hola zohanak, beharrik! Zer galdegiten du, alabainan, kanpoko bazterren egin ahala baliatzeak? Nola denak kasik, urruneko leku horiek, gorputzarentzat bortitz baitira, hotz edo beroegi direlaketz, ontasunetan premiatsuen da hangotzat, beso pare on batekin, osagarri bat azkarra. Euskaldunak baditu horiek: gaitzak guti du hunkitzen, sortzetik sendoa delaketz eta, ondoan, mainarik gabe hazten baita –« artoz eta mukuz », errana den bezala– iguzkiak eta haize-uriek aldizka diotelarik larrua gogortzen. Lur-lanari da bakarrik emana eta kabalen hazteari, bertzerik ez dakielaketz, zernahitara ohart-errex izanagatik. Sosaren beiratzale da, baitaki haren irabaztea zoin neke den, zonbat ahaldun gizona den harekin; hura gabe zoin ez-deus !

Bizkitartean, herriz kanpo horrela bizitzera zoazin gutiz gehienak Buenos Aires-ek zituen biltzen. Lehenik harat joanek, han erroak eginik, amu eta amarru handia zuten hemengoentzat, eta emeki-emeki lilluraturik ekarrarazten zituzten beren ondorat, emendatzen baitziren laster jendekin batean bai lana, bai irabazpideak. [...]

Denbora hetan, kabalek zuten emaiten gehienik. Anitzak aziendekin jartzen ziren, hirietarik bazter, bixtaz ikus ahala urruneko, maiz nausi bakar batenak ziren, ordoki batzuetan. Han, beren gomendio: ez apezik, ez medikurik, ez errientik, jandarmerik are gutiago, auzo bat gabe, berberak! Lastozko etxola bat egoitza, *rancho* bat; laguntzat, zaldi basa zenbeit eta zakur batzu, hok nausi baitira gizonari berari atxikimenduz; buru gainean, zeru garbi eta apal bat, erre nahi zuen iguzki batek argitzen zuena; zango petan, belarra berde, gizen eta nasai, lur guri beltz batetarik hain azkar eta tinki ateratzen zena, non ondo bat ez baitzen etzaten kanpo guzian. Beztia eta jana, bat bederaren gain, urtean behin eta bietan elgarretarat bil, lasterrago lan batzuen egiteko, hala nola ardi moztea, eta gero, ixiltasuna bakartasunean...

Jean Etxepare Medikua, *Koloniak*, 1903, *Eskualduna* astekaria.

Hirugarren dokumentua:

Indietako lurralde miresgarrietarik heldu nintzen urtea zen. Kubilai Khan Handiak ohitura zuen bezala, bere gela pribatuetara joanarazi ninduen, ene bidaia benturosetan ikusien eta gertatuen entzutea baitzen haren plazer handienetarik.

Bramanen herriko usaia batzuk aipatu nizkion. Erran nion ere nola Atiaxek, Maabar probintziako lau erregeren anaiak, Kaileko erresuma gobernatzen zuen. Portu horretara baitira heltzen eguzki sartzetik, Hormes, Quis, Aden eta Nubia guzitik jiten diren ontziak. Kondatu nion, nola Koilunen, izigarri bero egiten duen eta nola piperra berek landatu zuhaitzetarik maiatzean, ekainean eta uztailean biltzen duten, nola indigoa eguzkitan idorrazten duten, nola beroak fruitu arrunt bitxiak sorrarazten dituen eta nola, daitezkeen perroketa ederrenak eta mota guzietakoak, badituzten. Moko eta xango gorridunak, hegatsak gorri-gorriak dituztenak, bertze batzuk ttipiak eta berdeak direnak, denetan ederrenak elurra bezain xuri direnak direlarik. Nola haien paumak gureak baino handiagoak diren eta zinez miresgarriak. Hango jendeak larru beltzekoak dira eta abantzi biluzirik badabiltza, gerruntzeak oihal preziatuz gerrikatzen dituztela bakarrik.

Kurmari eta handik, eguzki sartzeari buruz, hirurehun miletan den Eliko hiria ere aipatu nizkion. Han porturik ez baitute, baina bai ordea uhaitz zabal eta onak, salerostetan dabiltzan itsasturiendako lanjerosak direnak, hango jendeak itsas-ohointzatik anitz bizi baitira. Erran nion nola beti sartaldera buruz joanez, artizarra gero eta gorago uraren gainean altxatzen den: bi beso Melibarren, bortz beso Gazuraten eta oraino gorago Kanbaeteko inguruetan. Nola Melibar eta Gazurateko erresumetarik ehun ontzi baino gehiago piperrez, kanelaz, Indietako eltzaurrez eta bertze anitz gauza miresgarriz, Mangi, Aden eta Alexandria aldeetara urtero ateratzen diren. Nola, aldi berean, Lebantetik ontziak urrezko eta zetazko oihalez, urre, zilar, gariofili hitze, eltzaur muskada, eta bertze anitz espeziaz beteak datozen.

Nola Gazurateko jendeak itsas-ohointzan biziki jakinak diren. Nola merkatariei kakeria ikaragarria sorrarazten dien aramarandra deitu edari bat ematen dien, tarrapataka iretsiak dituzten perlak eta harri preziatuen ahal bezain laster eskuratzeko gisan.

Toki horretan, gingenbra, piperra, Indietako eltzaur anitz eta kotoina atxematen da. Harrigarria da, gorriz tindatzen dituzten ahuntz, behi, ufa, idi basa edo adar-bakarren larruak, gero zein ongi badakizkiten, xori eta landare itxura loriagarritz apaintzen.

Aurelia Arkotxa, *Septentrio*, 2001, Alberdania.

Laugarren dokumentua:

Goiz batean, “Ibrahima, gaur *programa* bat prestatuko dut”, esan zidan Bahryk, “jainkoari otoitz egin diot segurua izan dadin, nahiko nuke zu ere ontziratzea”. “*Oke*, ez dago arazorik”, erantzun nion. Bi mila euroan egin genuen tratua. Hori izan zen nire bidaiaren prezioa. Bi mila euro, eta hiru hilabetearen haren etxean egin nuen lan guztia.

Gauean ur ertzeraino eraman ninduen. Zodiakak haizez puzteko bederatzi zulo zituen, eta ito beharrean ari ziren denak, eskuzko ponpekin, hanka azpikoekin, puztu puztu puztu puztu. Ponpa haien musika oraindik nire belarrian dago: ful-ful-ful-ful-ful. Han dena azken momentuan egiten da. Zodiaka puztu, motorra lotu, iparrorratz bat eman, eta uretara bultza. Bazoaz. Ez, zaude. Oraindik ez. Gauza bat ahaztu zait.

Marokoko Poliziak proiektore handi batzuk ditu, eta mendi gainetik dena kontrolatzen du. Gu ere ikusi gintuen, nola gindoazen abiatzera, eta oihuka hasi ziren. Orduan arabiarrek arnasarik hartu gabe segitu zuten ponpatzen, ful-ful-ful-ful-ful. Arabiarrak horretan abilak dira.

Badaezpada zodiaka asko puztu behar da. Batzuetan bidean haizea galtzen hasten delako. Eta normalean behar baino pertsona gehiago daramatzalako. Ful-ful-ful-ful-ful. Gu berrogeita hamahiru pertsona ginen. Haurrak, emakumeak eta gizonak.

...motorra lotu, iparrorratz bat eman, eta uretara bultza. Bazoaz. Orain bai. Zoriaren atzaparretan zaude.

Begiratzen duzu lau aldeetara eta dena da gauza bera: itsasoa. Eta zu ez zara inoiz haren gainean eseri. Orduan motorra itzaltzen da, kapitainak martxa aldatu diolako, edo batek daki zergatik, baina motorra itzali zen.

Zintzilik zegoen haritik tiraka hasi ziren, tira tira tira tira. Etsi arte tiratu zuten. Azkenean motorra berriz arrankatu zen, eta aurrera egin genuen, lur ertzetik urrun. Han, berriz begiratzen duzu lau aldeetara eta dena da gauza bera: itsasoa, eta zuk ez dakizu igerian. Orduan iparrorratza izorratzen da.

Abiatu aurretik arabiarrak esplikatu zigun, “orratza zero eta hamabosten artean baldin badago bide onean zoazte, baina orratza hamabostetik hogeita hamarrera pasatzen bada ez da norabide ona”. Eta nik ez dakit zer gertatu zen, baina norbaitek esan zuen, “iparrorratza kalatu da”, eta orduan zenbakirik gabe segitu genuen aurrera, nora gindoazen ez genekiela.

Itsasoaren erdian desagertu ginen.

Han, begiratzen duzu berriro lau aldeetara eta dena da gauza bera: itsasoa, eta ur azpitik haragi puska handi batzuk ateratzen hasten dira, *ohhhhhh*. Lehenik igo eta gero jaitsi, *ohhhhhh*. Norbaitek esan zuen, “*des dauphins*”. Baina nik ez nuen hitz hori sekula entzun, eta ikaratu egin nintzen, uste nuen gainera zetozkidala.

Ohhhhhh...

Nire izpiritua hegaldaka airatu zen. “Alhassane holako gau batez abiatuko zen”, pentsatu nuen. Eta nire familia osoarekin oroitu nintzen. Lehenik aita, gero ama, azkenik etxeko bi txikienak, Binta eta Rouguiatou.

Itsasoaren gainean esertzen zarenean bidegurutze baten erdian zaude. Edo bizitza, edo heriotza. Han ez dago beste aterabiderik.

Ametz Arzallus & Ibrahima Balde, *Miñan*, 2019, Susa.

II. Traduction

1. Version : testu hau euskarara itzul ezazu.

Je n'avais que vingt ans d'âge à ce moment-là. Fermes désertes au loin, des églises vides et ouvertes, comme si les paysans étaient partis de ces hameaux pour la journée, tous, pour une fête à l'autre bout du canton, et qu'ils nous eussent laissé en confiance tout ce qu'ils possédaient, leur campagne, les charrettes, brancards en l'air, leurs champs, leurs enclos, la route, les arbres et même les vaches, un chien avec sa chaîne, tout quoi. Pour qu'on se trouve bien tranquilles à faire ce qu'on voudrait pendant leur absence. Ça avait l'air gentil de leur part. « Tout de même, s'ils n'étaient pas ailleurs ! — que je me disais — s'il y avait encore eu du monde par ici, on ne se serait sûrement pas conduits de cette ignoble façon ! Aussi mal ! On aurait pas osé devant eux ! » Mais, il n'y avait plus personne pour nous surveiller ! Plus que nous, comme des mariés qui font des cochonneries quand tout le monde est parti.

Je me pensais aussi (derrière un arbre) que j'aurais bien voulu le voir ici moi, le Déroulède dont on m'avait tant parlé, m'expliquer comment qu'il faisait, lui, quand il prenait une balle en plein bidon.

Ces Allemands accroupis sur la route, têtus et tirailleurs, tiraient mal, mais ils semblaient avoir des balles à en revendre, des pleins magasins sans doute. La guerre décidément, n'était pas terminée ! Notre colonel, il faut dire ce qui est, manifestait une bravoure stupéfiante ! Il se promenait au beau milieu de la chaussée et puis de long en large parmi les trajectoires aussi simplement que s'il avait attendu un ami sur le quai de la gare, un peu impatient seulement.

Moi d'abord la campagne, faut que je le dise tout de suite, j'ai jamais pu la sentir, je l'ai toujours trouvée triste, avec ses bourbiers qui n'en finissent pas, ses maisons où les gens n'y sont jamais et ses chemins qui ne vont nulle part. Mais quand on y ajoute la guerre en plus, c'est à pas y tenir. Le vent s'était levé, brutal, de chaque côté des talus, les peupliers mêlaient leurs rafales de feuilles aux petits bruits secs qui venaient de là-bas sur nous. Ces soldats inconnus nous rataient sans cesse, mais tout en nous entourant de mille morts, on s'en trouvait comme habillés. Je n'osais plus remuer.

Louis-Ferdinand Céline, *Voyage au bout de la nuit*, 1932.

2. Thème : testu hau frantsesera itzul ezazu.

Makila ken?

Hauxe da bitxikeria!

Bainan egia ote da gero: Donapaleoko tribunalak Mauleko arrondizamendu guzian, Bidarraitik Santa Garaziraino, debekatu duela eskualdun makila? Holetan ba, egia da. Makila ferratua, zolan burdina eta plomuduna, iraupenaren eta haztarenatik egiten diren bezalakoa, hots, izendatzea aski da konprenitzeko: eskualdun makila debekatua da Xuberon eta Baxenabarren. Ez haizu nehor makilarekin jalitzera; ez auzo herri batetarat, ez merkaturat, ez nehorat joaiteko. [...]

Makila du eskualdunak bideari lotzeko bere laguna. Apaindura bat ere zaio eskualdunari bere makila. Atorra papo, mahunga xuri, zamarra sorbalda ezkerretik dilindan, esku eskuinaz makila lurrari deratxikola, ez da nehoren beldur, ez ahalge, eskualduna. Makilarik gabe jalgi eskualduna bere etxetik urrun? Iduri lakioke buluzirik doala. Hogoita bortzek nahiago lukete boneta eta oskiak etxean utzirik joan, buru has, untuts, ezen ez makilarik gabe.

Zer debru nahuzue egin, jaun jujeak, eskualduna eta makila elgarretarik ezin bereziak balin badire, kasik... senar-emazteak bezala? Diot kasik, hala nahi baitut erran, izariz mintzatzeko.

Uri ala ateri, onbrelarekin beharko naski ibili hemendik harat gizon eskualdunak; edo zarea besoan, emaztekiak bezala!... Xo, bizkitartean. Zaharño bat haizuko zeie, ba eta naski nahi bezen lodia ere, burdinarik gabea den ber. Joan, labe hagarekin, edo mahasti pazot bederarekin, edo aitzurra bizkarrean... atx, haatik, burdina badu zolan aitzurrak ere. Bainan, futxo, gizona zerbeit eskuan gabe ez duzu gizon. Eskualduna eskualdun makila gabe ez duzu eskualdun. Ez da hor harat-hunatik.

Ororen gainera, ez luke deusen beharragorik eskualdunen aipamenak. Ja eskuara gure mintzai zahar maitea kendu nahiz ahal guziak egin ondoan eta eginki oraino beti aitzina; gure erlisionea bera, orotako beharrena kendu nahiz bakerik ez demuntre hoiak ; eta orai makila ken eskuetarik, eskualdunaren azken marka, azken ohorea, azken indarra. Ken bezagute debruetarat eskualdun izena bera. Izana kenduz geroz, ez dugu izenaren beharrik.

Manex Hiriart-Urruti, *Eskualduna* astekaria, 1905.